


HAU → @ ← HAU



euskaldunon konpartsaren aldizkaia

Marijaia berriro gure artean!!!



Aupa jendie! Zelan zauzie? gu ondo eta Hau hau aurrera ateratzeko prest. Del Olmo epailea pozik ibili behar da Egunkaria itxi eta Berria argitaratzen hasi da, eta hori gutxi izango balitz bezala, guk Hau hau berriro kaleratzea erabaki dugu. Gauza berriak aurkituko dituzue ale berri honetan; Marijaiaren bidaia, konpartsako zelebreen bizitza, Eta beste batzuk zaharrak; mendekuak, eta abar... Beno espero dugu Hau hau berri hau zuen gustukoa izatea, eta holan ba da ziur berriro ikusiko dugula elkar. Adio, peñota!

gainera...


2 euskaren egoera

4 Bilboko panpiñaren bira

7 mendeku txiki

3 zorionak...

6 jaien egitaraua



Gabi Basañezek Berria-n idatzitako iritzi artikulua bat ekartzen zaituztegu. Jai egun hauetan kontutuan hartu behar dugu ze nolako erasoak jasan behar ditugun euskaldunok, azkena Pagasarriren aterpearena izan da. Oraingo honetan epaileek Basagoiti jaunari arrazoia eman diote eta hemendik aurrera jendea begira dagoen lanpostu publiko batetan Euskara jakitea eskatzea ilegala da. Ez gaituzten gelditu Pagasarriren tontorrean ez dela tabernari euskaldunik egongo, arazoa sakonagoa da eta. Bilboko udaleko edozein lanposturako ezin izango da Euskara jakiteak eskatu PP-k lan deialdia epaiketara eramango bait du. Bitartean gure alkate maiteak zerbait esan al du?, ba ez berak Bilboko biztaleen eskubideak bermatzea baino Pelliren dorreen inmobiliario promotorearena egitea nahiago du.

Basagoiti Pagasarri, alkandora berriarekin

Eta eguzkiari begira, falangistek betidanik egin duten modura. Pagasarri mendiko aterpea gobernatzeko baldintzetako bat euskaldunei zerbitzu emateko gai izatea zela eta, Bilboko zinegotziak, epaitegira jo zuen hizkuntza erregionalista baten alde larregizko babesa zelakoan. Eta salaketa Tribunal Superior de Justizia del Pais Vasco delakoak bere alde eman. Ikusia izango duzue jada, alkandora urdina zabalik eta paparra agerian duela beste kide falangistek euskara erakunde publikoetatik desagertzeko eraso egin dezaten eskatuz. PNV-EA-IUren legeria aplikatuz, zerbitzu publikoa izango den hori emateko erdalduna soilik izatea da derrigorrezkoa. Horra hor egia gordina, euskaldunok ez dugu eskubiderik ezta aterpe publiko batean onartuak izateko ere. Eta EHEko zozook medikuak, epaileak eta nik ez dakit ze beste zeru antzekorik eskatzen! Hori da nazionalismo demokratikoaren euskararen legeak markatzen digun sabaia. Bilboko udaleko PNV-EA-IUren asmoa aterpean euskalduna sartzea zen, baina eurek egindako

lege orokorrak berak ezeztatu du asmoa. Euskaldunok galtzaile, beste behin ere.

Bost edo sei egoera juridiko ezberdinetan dago euskara banatua, lurralde zatiketa dela medio. Eta horietako batean ere ez dira bermatzen euskaldunok administrazioan ditugun eskubideak. Baina zapalduak izanagatik, eskubide dira. Azken batean, bost egoera horiek frantses zein espainol konstituzioetatik eratorritzen dira, eta gure herriaren eraikuntza prozesuan euskarak duen garrantzia ezagutzen dutenez, legeetatik beraietatik moztu nahi da Euskal Herria euskalduna posible izatea.

Euskaraz bizitzen tematzen garenok ohituta gaude, kafesnea eskatu eta ebakia zerbitzatzeko digutela, gorria eskatu eta zuria atera, baina hōri bazterrak nahastea gustatzen zaigulako da. Lagun batek zera diosta, oso erraza dela apurka-apurka aurrera doan euskara tabernako barrara arte ailegatzea itxarotea, eta bitartean espainol modura bizitzea. Zer ba, arazorik ala?

Umeak ikastolan daude eta, euskaraz euren artean zergatik ez

duten egiten ulertzen ez dudan arren eta egiten duten apurra ulertzen ez diedan arren, euskara salbu dago, denbora kontua da. Goazen zinemara Hulk ikustera.

Aita, erdaraz da baina...

Berdin da. Hori ere helduko da egunen batean. Bizi behar da, ume!

Halako euskararen baikorkeria oinarritutako politika dabil indarrean Euskal Herriko mendebaldean. Txikito bat Pagasarri euskaraz hartu ezin. Lasai, gauzak ondo doaz.

Getxoko nazioarteko txirindulari lasterketan Frantziako itzulian baino euskara gutxiago. Lasai, gauzak ondo doaz. Umeak pediatriari ezin ulertu eta pediatrik amari esan «*espainola umeari ez irakastean bere kontra ari zarete*», umeak entzun eta aitaren aluzinatu aurpegia ikusi du. Baina, lasai, gauzak ondo doaz. Faxistak aurea hartzen ari dira, eta euskararen kontra urteetan egiten ausartu ez direna, orain ari dira, paparra agerian. Lasai, gauzak ondo doaz. Bai baina, zuen legeria erabiliz ari dira eta! Lasai, gauzak ondo doaz. Baina txikito bat eskatzeko ere balio ez duen ofizialtasunak, zer balio du? Lasaitzen ez bazara, gauzek txarrera egingo dute.


ZORIONAK KANDILLO 10 URTE HAU PITU HAU-n

Geu behintzat, Euskal Herri osorako ofizialtasuna aldarrikatu eta hizkuntza eskubideen bermatzaile izango den euskararentzako lege bakarra lortzeko bidean ez gara geldituko. Eta eraso bakoitzari gure indarren araberako erantzuna ematen saiatuko gara.

Dugun ofizialtasunak ere ez duelako zipitzik balio. Horixe esaten aspaldi gabiltza EHEko kideok. Eta, egia esan, nahi baino adibide ugariago ditugu, egunerokoak. Eta ez da erretorika. Orain Falangistak ere konturatu egin dira. Zer egingo du EAJ-EA-IUK honen aurka? Bi hizkuntza ofizial dituen lurralde batean guztiz logikoa den modura funtzionario izateko euskaraduna izateko beharra legezlatu behingoz, edo orain indarrean dagoena mantendu, hots, espainola soilik derrigorrez jakiteko beharrarekin jarraitu.

Ikusiko! Bitartean euskaldunak hizkuntza eskubide gabekoak gara. Eta Basagoiti bezalakoek barrez, ondo ikasia dute euren aurrekoek egindakoa, eta bideari berrekin diote: *«En todos los cafés; en todos los restaurantes; en todas las tiendas; en todas las oficinas deberían colgar carteles que digan: si eres español, habla en español»* (Unidad aldizkari falangistak, 1937an).

**Eta euskalduna bazara, ere bai!
Derrigor!!**



**(ZORIONAK HAU PITU HAU, 10 URTE
KANDIREKIN EZ DIRA GUTXI)**



GALERAZTEN DIGUNARI IPURDIA ERAKUTSI



Marijaia,

Marijaia hartuta abiatu ginen Gasteizerantz. Aitortzen da beldurra sentitu genuela pentsatzen nola hain luketen hiritarrek guk Marijaia Euskal Herritik pasatu bat eramatearena, hiritarrek... eta Bilbotarrek. Gasteiz heldu bezain laster gure konpartsakide batek zekur sorpresa jaso zuen. "Baina hori Marijaia da! ze egiten dau hemen, Bilbotik hain urrun." Zelako bari. Ez genuen pentsatzen hain ondo gordeta genuela sekretua. Beste sorpresa bat izan genuen handik gutxi. Andra Zuriaren plazan lan egiten zeuden bi lorak bizkaitarrak gurekin dantzatzeko hasi zirenean. Oso hartu zuten Mari Jaiaren bisitarena, bai bizkaitarrek bai hainbat gasteiztarrek. Bertako atso batek konfirmat zigun hauxe esaten: "Ze poza handia hartu dudanean hezuzenean, Bilboko Mari Jaia ikustean. Telebista polita agertzen da baina, aurrez aurre ikusita, auzo ederragoa da. Ai, Ze polita den!"

Iruñiarantz jo genuen orduan, denbora pasatu eta lasaitzen ginen bitartean. Bilbotik, oraindik, berri asko ez zitzaizkigun ailegatzen. Dena den, gureaz jabetu eta kazetariak mobilera deika ibili ziren "Baina, zuek dago? Benetan?" "Iruñia eramango duzue?, ze ondo izango da hori?" "Eta nola bururatu zaizue?" "Ez, ideia polita da, baina, bilbotarrek zer esango du?"

Esan genuen bezala, hamabietan, Udaletxeko pabiloan agertu ginen gure panpiñarekin, guiri guztiek paratu eta argazkiak egiten, eta animatuenak dantzatzeko hasi. Gasteizen bezala, entzun genituen komentario xeletak "Buruhandiak kalean". Batzuk ziur zalantzatan gertatu zirela San Ferminak bukatu ez ote ziren.

*"Marijaia bera, gure Marijaia, Bilbora etorri da Aste Nagusira..."
Holan dio abestiak, eta holan izan zen. Bilbon egon zen gure Marijaia, baina ia beste urtetan gertatu ez bezala, gure Marijaia Euskal Herria ezagutzera joan zen. Donostia, Maule, Gasteiz eta Euskal Herriko beste herri batzuk ezagutu zituen. Marijaia oso pozik itzuli zen Bilbora, Leku guztietan berak egoteak alaitu egin zuen jendea. Irulegiko irratiko lankideak, Gasteizeko lorazainak, Baionan bizi diren errefuxiatu batzuk... haiek izan ziren Marijaia ezagututako lagun batzuk bidaia zoragarri borretan.*



Bilbotik Euskal Herrira

ekoa
tuko
otxo
izera
ilako
ostia
reak!
anik
itxira
izain
ondo
k eta
matu
men,
ere
skoz

hala
korik
ziren
in al
lutan
, ez,
te?".
azan
ziren
ziren.
reak:
eratu

Egunkariako argazkilaria laster agertu zen eskusibaren bila. Pare bat pote edan eta jarraitu genion geureari.

Donibane Garazira azkar joan ginen. Bertan Irulegiko irratikoak gure zain zeuden elkarrizketa bat egiteko. Ez zegoen denbora galtzerik, hori dela eta, batzuk erabaki genuen Maulera joatea Marijaiarekin, beste batzuk Irratira joaten eta elkarrizketa egiten genuen bitartean. Irratiko saio zuzen batean azaldu genuen gure bidaiaren zergatia, nolakoak diren gure txosnak, ze jai mota dugun Bilbon... Eta eskaintza paregabea luzatu genien iparraldetarrei: "*Bilboko jai hauetan iparraldeko norbait pasatzen bada Hau Pittu Hau-ren txosnatik, bi garagardo dohainik*". Ba pasatu ziren, bai, Irulegi irratian entzundakoarena kontuan izan zutenak, Donibaneko bi lagun hain zuzen ere. Irrati saioa amaituta, ekin genion gure material-trukeari: gure konpartsaren pegatinak eta Marijaiaren diskoak irratiazen pegatinak eta egunkariarekin batera ateratako disko baten truke. Besarkada handiak agur esaterakoan eta gonbidapena denei haien herriko jaietara joateko.

Marijaiarekin joandako lagunena bila abiatu ginen. Haiekin topo egin genuenean "*Jode Txo, Maulera heldutakoan Marijaia furgonetatik atera eta ume batek bere aitari zera esan dio: Aita, hori da Marijaia, irratian komentatu dutena, Bilbotik etorritako panpiña!*"

Donibane Garazitik kalejira ikusgarria egin genuen gure Marijaiari alde zaharreko kantoi guztiak erakusten eta bertako jendeari ezagunarazten. Batzuk, ausartak, hurbildu ziren guregana ea panpiñ erraldoi hura nor zen galdezka.

Gure ibilbideari jarraituz, Baionara heldu ginen, iada bidaia luzeek eragiten duten nekea sentituz (kontuan izatekoa da batzuk gaupasaz etorri zirela). Horregatik aprobetxatu genuen taberna batera joateko zeozer hartzera lasai. Agertu ginen tabernan errefuxiatu batzuekin egin genuen topo eta, denok, une batez, gure ekintzak Bilbon izango zituen ondorioak ahaztuz, harro sentitu ginen. Zer nolako poza eta alaitasuna sortu zezakeen gure ideia magikoak! Haien ere haien uste ezin hobea eman ziguten Euskal herriko lurraldetasuna erreibindikatzeko modu original hari. Bilbotik heltzen ziren berriak ez ziren oso onak baina gu pozik, egindako lanarekin eta bidaiaren zehar izandako harremanekin


Azkenean, oso nekatuta, Donostian agertu ginen, gure azkeneko hirian. Jendea guregana hurbiltzen zen "*Ze ostia egiten dezue hemen, Bilbon ez dago jairik ala?*". Guk emandako azalpenarekin jendea konforme geratu zen.

Bilbon, Marijaiak izan zuen bere ongietorri beroa. Eta ordun geroztik gertatu zena badakizue: bronkak, zorianak... Denetarik egon da, baina Marijaiarekin joan ginenon ustez, berarekin egindako bidaia zoragarria izan zen, neketsua ere, baina, batez ere, zoragarri eta ahaztuezina. Merezi izan zuen, nahiz eta beste 25 urte itxaron beharko berriro ikusteko gure Marijaia Baiona, Iruña edo Donibane Garaziko kaleetatik. Kontrolatuta izango gaituzte baina, behin lortuta gai izango gara errepikatzen.

--- ASTE NAGUSIAREN EGITARAU ---



non? Plaza Berrian
noiz? Asteazkena 20, 17:00 etan



ASTE NAGUSIA
BAKARRA DAGO
HIAMAR GAUEKOA
MUNDUAN...

PLAY BACK
TXAPELKETA

Astelehena 18
Konpartsero Sarien ostean

ARGAZKI TXAPELKETA
LARUNBATA 16TIK AURRERA



HAU PITTU HAU
Euskaldunen Konpartsa





Astelehena 18
Bazkaldu ostean



BOZKA ITZAZU,
MEREZI DUTE ETA

KOKTEL TXAPELKETA



Astelehena 28
Play Back-en ostean **HAU PITTU HAU Euskaldunen Konpartsa**



mendeku txiki!!!

Aintzane, sagardo botila noizko? Andereño

Ehun baino gehiago pertsona konpartsan, orain egongo gara aste nagusian, eta ondo pasatzeko gure ekitaldietan, guztiok lana DAUKAGU daukagu urte osoan.

Pirriki Errealekoa da!!!!

Ez izan ergela, izan PPIerdo. Iñiguito

Astrabu, zu Irlandan egon zara? Holako patillekin, holako kalorri itxura, tragaperretan maisu. Zu TORREMOLINOSen egon zara urtea pasatzen, CESIDen ikastaro batetan!!! Sinatuta: HPH kontraespionaje batzordea.

Panoramix, zure bizarraren ile bat topatu dut poziman!!!! Obelix

*Aurtengo tourrarekin
Zelako tourrada
Grenetek omen dauka
Euskara alaba
Hain polita izanik
Neska hori hara!
Ze moduz Perurekin
Arrimatzen bada?*

*Bizikleta hartuta
Bilborantza noa
Mari Jaiak ligatzen
omen du asmoa
Pitxuren bila arin
Garazira doa
Pitxu Bilbon lotan da
Mozkor halakoa*

*Kaponatak badauka
Nobio beharra
Kanpirentzako baitu
Sua eta garra
Kanpiren nahia antza
Besteren bat bada
Koldito hartu nahi du
Berantzat senarra*

*Azkuna azkenetan da
Guk entzun duguna
Monika, oso "monika",
Gustoko zaiona
Azken egunak goxo
Nahi, baina ze pena!
Monikak kamara du
Bere maitasuna*

*Amagoia Gorlizen
Gizonen eskean
Bekan ipini zaio
Txosnan bere aldean
Komunara sartuta
Amagoiak di-dan
Zulotik bota egin du
Ta tira katean*

*Gure konpartsa dago
Solteroz beteta
Hurrengo jaietako
Ipini harreta
Tourra euskaraz eta
Jaiak be paseta
Bikote-trikoteak
Balitezke eta!*

Iker, lapurra kubata hori nirea da

Mesedez, jaitsi Home-Zinemaren bolumena. Sinatuta: Txominen auzokideak


Jimmi zelan dakizu Romeo eta Julietoren sexua???? Ba sakatu sabeltxoan, txo.

Gure konpartsan bada mutil bat bertso hau merezi duena sartu zen orain dela bi urte eta montatu zuena igo zen elefante gainean eta pintatu zuen dena pintada ona,elefantea askatu horixe zen zioena azken zapatuko gau huraxe duda barik zen onena aurtengo Aste Nagusian ere eginzak beste faena aurtengo Aste Nagusian ere eginzak beste faena

Hau Pittu hau konpartsa euskararen alde, Euskara bultzatzeko gu jaietan gaude, Txomin, Aintza ta Pittu zintzo zintzo daude, ta zu Kanpillo ordea mozkortuta zaude.

KKP bozkatu, ez moztu. Lider sendo bat behar dugu eta!!!

Bozkatu KKP, Botu eregela, BOZKATU ERGELA.





KKP

KANPILLO KAUDILLOAREN PARTIDUA

BUSH, AZNAR, PUTIN, BERLUSCONNI????



MARIKOI
HALAKO HAUEK
MELAPELAN!!!!!!

ESPAINAN BAGENUEN
NONBAITEN KAUDILLO
TA ESATEN GENION
CORRE QUETE PILLO,
BAINA GAURKOAN ere
IZAN BEHAR PILLO,
HAU PITTU HAU-n KAUDILLO
DAUKAGU KANPILLO



KANPILLO: BOTU ERGELA

ZURE MODUKO BOTUA !!!!!!!

BOZKATU ERGELA!!!